

**LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA****Zk-5511**

EBAZPENA, 2004ko uztailaren 16koa, Ingurumen sailburuordearena, Guascor Renovables SA enpresak Zierbenan sustatzen duen «Bilboko Portuko energia berriztagarrien parkea» izeneko parke eolikoaren proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera, bere I. eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioaren menpe izango dira, eta prozedura horri amaiera emateko ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin beharko da, betiere, proiektu horiek egiteko edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-ebazpenaren aurretik.

Guascor Renovables SA enpresak Zierbenako udal-mugar-tean sustatzen duen «Bilboko Portuko energia berriztagarrien parkea» izeneko parke eolikoaren proiektua baimentzeko prozedura hasi da, eta otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegin-tzako Errege Dekretuak eta hori garatzeko Araudia onesten duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz, besteak beste, honako izapide hauek bete dira:

2003ko apirilaren 1ean, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak adierazi zuen jada amaitu zela eskaerak lehia bidez izapidetzeko prozedura, maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak bere 4. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenari jarraiki (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan energia eolikoaz baliatuta energia elektrikoa sortzeko parke eolikoko instalazioak baimentzeko prozedura arautzen da). Guascor SA enpresak aurkeztu zuen eskaera bakarra eta, ez zenez beste interesaturik agertu, enpresa hori kontuan hartuta jarraitu behar zaie ingurumen-inpaktuaren adierazpen-rako administrazio-izapideei.

Proiektua eta ingurumen-inpaktuko azterketa jendaurrean jarri ziren hilabetez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 55. zk., 2004ko martxoaren 22koa).

2004ko ekainaren 16an, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Ingurumen Sailburuordetzara bidali zuen espedientea, zegokion ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zedin.

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE****Nº-5511**

RESOLUCIÓN de 16 de julio de 2004, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de parque eólico denominado «Parque de energías renovables del Puerto de Bilbao», promovido por Guascor Renovables, S.A. en el término municipal de Zierbena.

De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, los proyectos contemplados en el apartado B) de su Anexo I quedan sometidos al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, que culmina en una Declaración de Impacto Ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

Iniciado el procedimiento de autorización del Proyecto de parque eólico denominado «Parque de energías renovables del Puerto de Bilbao», promovido por Guascor Renovables, S.A. en el término municipal de Zierbena, y resultando de aplicación lo dispuesto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, como en el Real Decreto Legislativo 1302/1986 de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y en el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre por el que se aprueba el Reglamento para su desarrollo, se han formalizado en relación con el mismo, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan:

Con fecha 1 de abril de 2003, el Departamento de Industria, Comercio y Turismo informó sobre la culminación de los trámites de solicitud en competencia, previstos en el artículo 4 y ss. del Decreto 115/2002, de 28 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el sentido de que, al ser la empresa Guascor, S.A. el único promotor en presentar la solicitud citada y no habiéndose presentado ningún otro interesado, dicha empresa debe considerarse como el interesado con el que deben seguirse los trámites administrativos para la Declaración de Impacto Ambiental.

Información pública del proyecto y estudio de impacto ambiental por un período de un mes (Boletín Oficial del País Vasco N.º 55, de 22 de marzo de 2004).

Con fecha 16 de junio de 2004, el Departamento de Industria, Comercio y Turismo remitió el expediente a la Viceconsejería de Medio Ambiente para la formulación de la correspondiente Declaración de Impacto Ambiental.

Erreferentziako proiektuaren espedientean dauden txostenak eta agiri teknikoak aztertu ondoren, eta ingurumen-inpaktuaren azterketa egokia dela eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdiei egokitzen zaiela aintzat hartuta, Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-inpaktuaren adierazpena emateko eskumena duen organoa izanik, Euskal Autonomia Erki-degoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuaren arabera, ondokoa

EBATZI DU:

1.– Guascor Renovables SA enpresak Zierbenan sustatzen duen «Bilboko Portuko energia berriztagarrien parkea» izeneko parke eolikoaren proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpen honen alde egitea.

2.– Honako baldintza hauek ezartzea proiektua burutzeko, lotesleak izango direnak Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 47.2 artikulua arabera:

2.A.– Proiektuak ingurumenean izango duen eragina ebaluatzeko Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu zaizkion agirietan adierazitakoari lotuz egingo da proiektua, eta ebazpen honetan bildutako zehaztapenak aintzat hartuz.

2.a.1.– Espediente honi dagokion ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozeduran energia elektrikoaren kanporatzeko linearen instalazio-obrak hartu dira kontuan. Obra horiek «Bilboko Portuko energia berriztagarrien parkea izeneko parke eolikoaren oinarritzko proiektuari dagokion eranskina. Guascor Renovables SA 2003ko abendua» izeneko agirian aurreikusitakoarekin bat etorritik garatuko dira (agiri hori 2004ko maiatzaren 17an igorri zen Ingurumen Sailburuordetza honetara). Agiri horrekin bat etorritik, linearen trazadurak 2004ko ekainaren 16an Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak igorri zuen oinarritzko proiektuko AZP.0212. EE.PG002 planoan zehazten denarekin bat dator. Hortaz, ingurumen-inpaktuaren azterketan eta Ebazpen honen 2.C atalean adierazten diren neurri zuzentzaile guztiak aplikatuko dira.

Hori guztia, kasuan kasu aplikatu beharrekoak diren baimentzeko eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozedura zehaztetatik ondorioztatzen denari kalterik egin gabe.

2.a.2.– Proiektua gauzatzeko aurkeztu diren aurrekontuak eta baldintza-agiriak, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honek ezartzen dituen neurri babesleak eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa beteazteko obra-unitateak eta prezioak barne izango dituzte.

Examinada la documentación técnica y los informes que se hallan en el expediente del proyecto de referencia, y a la vista de que el estudio de impacto ambiental resulta correcto y se ajusta a los aspectos previstos en la normativa en vigor, la Viceconsejería de Medio Ambiente, órgano competente para el dictado de la presente Declaración de Impacto Ambiental de acuerdo con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y el Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente,

RESUELVE:

1.– Formular con carácter favorable la presente Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de parque eólico denominado «Parque de energías renovables del Puerto de Bilbao», promovido por Guascor Renovables, S.A. en el término municipal de Zierbena.

2.– Fijar las siguientes condiciones para la realización del proyecto, las cuales son vinculantes de acuerdo con lo especificado en el artículo 47.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.A.– El proyecto se desarrollará de acuerdo con la documentación presentada en esta Viceconsejería de Medio Ambiente para la evaluación de impacto ambiental del proyecto, y específicamente con las determinaciones contenidas en esta Resolución.

2.a.1.– El procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental de este expediente ha tenido en cuenta las obras de instalación de la línea de evacuación de energía eléctrica, que se desarrollarán conforme a lo previsto en el documento denominado «Anexo al Proyecto Básico del Parque Eólico Parque de Energías Renovables del Puerto de Bilbao. Guascor Renovables, S.A. Diciembre de 2003», remitido a esta Viceconsejería de Medio Ambiente en fecha 17 de mayo de 2004. De acuerdo con este documento, el trazado de la línea será el coincidente con el definido en el plano AZP.0212. EE.PG002 del Proyecto Básico remitido por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo con fecha 16 de junio de 2004, resultando de aplicación el conjunto de medidas correctoras contempladas en el estudio de impacto ambiental, así como en el apartado 2.C de esta Resolución.

Todo ello, sin perjuicio del resultado de los procedimientos específicos de autorización sustantiva y evaluación de impacto ambiental que sean de aplicación en su caso.

2.a.2.– El presupuesto y el pliego de condiciones presentados para la ejecución del proyecto deberán completarse con las unidades de obra y precios relativos a la ejecución de las medidas protectoras y correctoras y del programa de vigilancia establecidos mediante la presente Declaración de Impacto Ambiental.

2.B.– Proiektuan aldaketak edo gehiketak egiten bada, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 50. artikuluan xedatutakoa izango da aplikagarri.

2.C.– Neurri babesleak eta zuzentzaileak.

Proiektuaren sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztu dituen agirietan jasotakoaren arabera burutuko dira neurri babesleak eta zuzentzaileak, eta horiei atal honetan jasotakoak gehituko zaizkie.

2.c.1.– Proiektua gauzatu bitarteko neurri babesleak eta zuzentzaileak.

2.c.1.1.– Jarduketa-eremua mugatzea.

a) Obrak proiektua egiteko behar-beharrezkoa den gutxieneko azaleraren barruan egingo dira. Ahalik eta gehien murriztuko da makinak eta ibilgailuak pista eta bideetatik kanpo ibiltzea eta aparkalekuetatik kanpo uztea.

b) Obrara, makinaren parkera eta materialak jasotzeko eta landare-lurra aldi baterako gordetzeko eremura sartzeko bideak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izango duten irizpideak erabilita proiektatuko dira. Hondakinak eta materialak ez dira botako edo pilatuko uren kalitatean eraginik izan dezaketen tokian, alegia, zuzenean edo euri-urarekin nahastuta uren kalitatean eraginik izan dezaketen tokian.

2.c.1.2.– Faunan izan dezakeen eraginari dagozkion neurri babesleak eta zuzentzaileak.

a) Proiektuaren eragin-eremuan dauden hazteko hegaztiei arazorik ez sortzeko, aerosorgailuak instalatzeko obrak urtarriletik ekainera bitartean (biak barne) egingo dira.

2.c.1.3.– Urak babesteko neurriak.

a) Bidezko neurriak hartuko dira itsas uren kalitatean eraginik izan dezaketen istripuzko isurketak eta lur-arrasteak gerta ez daitezten. Beharrezkoa bada, kutsatutako urak biltzeko kautelazko elementuak edo sistemak jarriko dira, ur horiek aurreikusi gabeko egoeretan itsasora isurtzea galarazteko.

b) Obrako ibilgailuak mantendu eta horiek erregaiz hornitzeko operazioak eta tailerreko jarduerak, ezingo dira beren beregi horretarako ez diren zonetan egin. Gunen horiek mugatuta egongo dira eta zola iragazgaitza eta isurketak jasotzeko sistema izango dituzte.

2.c.1.4.– Hauts gutxiago altxatzeko neurriak.

Obrak irauten duen bitartean garbiketa-lanen kontrol zehatza egingo da ibilgailuen igarolekuan, proiektuaren jarduketa-esparru zuzenenean, ukitutako ingurunean zein sarbideetan eta, batez ere, jendea bizi den

2.B.– En los supuestos de cambios o ampliaciones del proyecto resultará de aplicación lo dispuesto en el art. 50 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.C.– Medidas protectoras y correctoras.

Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor del proyecto para su Evaluación de Impacto Ambiental, a las que se añadirán las recogidas en este apartado.

2.c.1.– Medidas protectoras y correctoras durante la ejecución del proyecto.

2.c.1.1.– Delimitación del ámbito de actuación.

a) La ejecución de las obras se efectuará dentro del área mínima indispensable para la realización del proyecto. Se restringirá al máximo la circulación de maquinaria y vehículos fuera de las pistas, caminos habilitados para tal fin y áreas de aparcamiento.

b) Los accesos de obra, parque de maquinaria y área de almacenamiento de materiales y de los acopios temporales de tierra vegetal se proyectarán utilizando criterios de mínima afección ambiental. No se realizarán vertidos ni acopios de residuos o materiales en áreas desde las que, directamente o por escorrentía, se pueda afectar a la calidad de las aguas.

2.c.1.2.– Medidas protectoras y correctoras de la afección a la fauna.

a) Al objeto de evitar molestias a la avifauna reproductora presente en el entorno de afección del proyecto, las obras de instalación de los aerogeneradores no deberán ejecutarse entre los meses de enero a junio, ambos incluidos.

2.c.1.3.– Medidas destinadas a la protección de las aguas.

a) Se adoptarán las medidas oportunas para evitar vertidos accidentales y arrastre de tierras que puedan incidir sobre la calidad de las aguas marinas. En caso de resultar necesario, se dispondrán elementos o sistemas cautelares para la recogida de aguas contaminadas, de forma que se impida que dichas aguas se viertan efectivamente al mar en situaciones imprevistas.

b) No se permitirán las operaciones de mantenimiento y carga de combustible de los vehículos de obra, así como las actividades propias de taller, en zonas que no estén expresamente destinadas para ello. Dichas áreas estarán acotadas, dispondrán de solera impermeable y de un sistema para la recogida de derrames.

2.c.1.4.– Medidas destinadas a aminorar las emisiones de polvo.

Durante el tiempo que dure la obra se llevará a cabo un control estricto de las labores de limpieza al paso de vehículos, tanto en la zona de actuación más directa del proyecto y entorno afectado como en las áreas

guneetan eta lehendik bazeuden bideetatik obrarako irisbideetan. Obretan dagoen partzelaren irteeran, gurgulak garbitzeko gailua jarriko da eta hau efluentek bildu eta tratatzeko sistemari konektatuta egongo da.

2.c.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obrek irauten duten bitartean sortzen diren hondakin ezberdinak, besteak beste, lantegiak eta enbala-jeak prestatzetik datozenak, baztertzeko lehengaiak, indusketa-hondakinak eta garbiketa-kanpainatik sortutakoak, hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta araudi berariazkoetan aurreikusitakoarekin bat etorri kudeatuko dira.

Arriskutsuak ez izanik hondakindegira eraman behar diren hondakinak, hondakindegian utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuan eta hondakin inerte eta inertizatuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Erabilitako olioiei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioien kudeaketari buruzko irailaren 29ko 259/1998 Dekretua aplikatuko da.

Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen baloratzaileran eraman behar dira.

b) Proiektuan eta ingurumen-inpaktuaren azterketan jasotako proposamenarekin bat etorri, indusketatik sortzen diren hondakin inerteak betelanelatarako erabili ahal izango dira Bilboko portuko obretan.

Edonola ere, indusketa-hondakinentzako beste depositu batzuk eraikitzea beharrezkoa balitz, azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, eraikuntza zehaztuko duen proiektu bat egin beharko da. Proiektu horren edukiak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren 1995eko otsailaren 15eko Aginduan (Hondakin inerteen edo inertizatuen, isurtegien, lurren beteketen eta egokiketen instalazioei buruzko memoria eta proiektuen gainekoan) ezarritakoa bete beharko du, honako alderdiez gain:

Sarbideak, aurreikusitakoak, lehendik zeudenak edo egin beharrekoak.

Gehieneko azalera adieraztea.

Paisaia lehengoratzeko neurriak, depositu bakoitzeko zehaztuak.

Ingurumen Sailburuordetzak erabakiko du proiektu horiek guztiak baimendu behar dituen.

c) Aurreko ataletan ezarritakoa beteko dela errazteko, lan ezberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarriko dira. Lan horietan dihardutenak arduratuko dira langileei aipatutako kudeaketa-sistemak on-

de acceso y, en particular, en zonas habitadas y en los accesos a obra desde los viales existentes. A la salida de la parcela de obras se instalará un dispositivo de limpieza de ruedas conectado a un sistema de recogida y tratamiento de efluentes.

2.c.1.5.– Medidas destinadas a la gestión de los residuos.

a) Los diferentes residuos generados durante las obras, incluyéndose los resultantes de las operaciones de preparación de los diferentes tajos, embalajes, materias primas de rechazo, sobrantes de excavación, y los residuos procedentes de la campaña de limpieza, se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas.

Los residuos no peligrosos con destino a vertedero se gestionarán de acuerdo con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados.

Para el caso de los aceites usados, será de aplicación asimismo el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado.

b) De acuerdo con la propuesta contenida en el proyecto y estudio de impacto ambiental, los sobrantes inertes procedentes de excavaciones podrán destinarse a rellenos en las obras del puerto de Bilbao.

En cualquier caso, si fuera necesaria la construcción de otros depósitos de sobrantes de excavación, en cumplimiento de lo establecido en el citado Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, deberá redactarse un proyecto de instalación de depósitos de sobrantes cuyo contenido se ajustará a lo especificado en la Orden de 15 de febrero de 1995 del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, sobre contenido de los proyectos y memorias descriptivas de instalaciones de vertederos de residuos inertes o inertizados, rellenos y acondicionamientos de terreno y cumplimentar, además, los siguientes extremos:

Accesos previstos, preexistentes o de nueva ejecución.

Señalización de la extensión máxima.

Diseño de la restauración paisajística particularizado para todos los depósitos.

Dichos proyectos se encuentran sometidos a autorización por parte de esta Viceconsejería de Medio Ambiente.

c) Con objeto de facilitar el cumplimiento de lo establecido en los párrafos anteriores, deberán disponerse sistemas de gestión de los residuos generados en las diferentes labores. Los encargados de estas labores se-

do erabiltzen erakustez. Zehazki, inoiz ez dira hondakinak erreko, ezta erregaiak eta produktuak biltzetik nahiz makinaren mantenimendutik sortzen diren efluen- te kontrolatugaberik isuriko ere.

Erabilitako olioak aldi baterako biltzeko, baimendu- tako kudeatzaileak berarekin eraman artean, seguru- sun-kubeta jarriko da; horrela, udal-depositua hautsi edo estankotasuna galdu duelako gerta daitezkeen is- tripuzko isurketak ekidingo dira.

2.c.1.6.– Obraren garbiketa eta akabera.

Obrak bukatu ondoren, alderdia ondo garbitu behar- ko da, proiektuaren eragin-areako obra-hondakin guz- tiak kenduz. Eraspenetatik, enkofratuak kentzetik eta, oro har, garbiketa-lanetatik datozen materialak zona- tik aterako dira eta baimendutako isurtegian jarriko di- ra.

2.c.1.7.– Lan-programa diseinatzea.

Obrak hasi baino lehen, kontratistak ekintza-propo- samen batzuk egin beharko ditu, ondoko azpiataletan zehaztutako alderdi batzuetan zehazten direnak. Pro- posamen horiek lanak egiteko programan barneratuta geratuko dira eta obrako zuzendariak beren beregi one- tsi beharko ditu, Ebazpen honen 2.D atalean aipatuta- ko ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

Obra-eremua zedarritzea.

Obra-sarbideak, makinaren parkea eta materialak eta hondakinak biltegitartzeko eremua non kokatuta dau- den eta horiei buruzko ezaugarriak, Ebazpen honen 2.c.1.1 atalean aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Obraren fase ezberdinei dagokien kronograma xeha- tua.

2.c.2.– Parkearen funtzionamendu-faseko neurri ba- besleak eta zuzentzaileak.

2.c.2.1.– Faunan izan dezakeen eraginari dagozkion neurri babesleak eta zuzentzaileak.

a) Parke eolikoaren eremuan dorre anemometrikoak instalatzen badira eta tiranteak edo loturazko sokak era- biltzea aurreikusten bada, hegaztientzako gailuak jarri- ko dira, talka egiteko arriskua ahalik eta gehien mu- rritzeko.

b) Ingurumen-inpaktuko azterketan adierazitakoar-ekin bat etorritz, ekaitza dagoenean eta haizeek 90 ki- lometro orduko abiadura gainditzen badute, aerosorgai- luak erabat geldituko dira eta ez dira berriro martxan jarriko, haizearen abiadura kopuru horretatik behera ez dagoen arte.

c) Aerosorgailu jakin batzuk martxan egotea hegaz- tientzat oso arriskutsua bada, aldaketak egin ahal izan-

rán responsables de la correcta utilización por parte de los operarios de los sistemas de gestión citados. En par- ticular, en ningún caso se producirá la quema de resi- duos ni el vertido de efluentes incontrolados proceden- tes del almacenamiento de combustibles y productos y del mantenimiento de la maquinaria.

Para el almacenamiento temporal de aceites usados hasta el momento de su recogida por gestor autorizado deberá disponerse un cubeto de seguridad que evite la dispersión de vertidos accidentales por rotura o pérdi- da de estanqueidad del depósito principal.

2.c.1.6.– Limpieza y acabado de la obra.

Una vez finalizada la obra se llevará a cabo una ri- gurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos de obras. Los materiales resultantes de las demolicio- nes, retirada de encofrados y en general, de las opera- ciones de limpieza, serán desalojados de la zona y de- positados en un vertedero autorizado.

2.c.1.7.– Diseño del Programa de Trabajos.

Con carácter previo al inicio de las obras el Contra- tista deberá elaborar una serie de propuestas de actua- ción detalladas en relación con los aspectos que se se- ñalan en los subapartados siguientes. Dichas propues- tas quedarán integradas en el Programa de ejecución de los trabajos, y deberán ser objeto de aprobación expre- sa por parte del Director de Obra, previo informe de la asesoría ambiental mencionada en el apartado 2.D de esta Resolución.

Delimitación de la zona de obra.

Detalle de localización y características de los acce- sos de obra, parque de maquinaria y área de almacena- miento de materiales y residuos, de acuerdo con lo pre- visto en el apartado 2.c.1.1 de esta Resolución.

Cronograma detallado de las distintas fases de las obras.

2.c.2.– Medidas protectoras y correctoras en la fase de funcionamiento del parque.

2.c.2.1.– Medidas protectoras y correctoras de la afección a la fauna.

a) En el caso de que se instalen torres anemométri- cas en el ámbito del parque eólico y se prevea el em- pleo de tirantes o vientos de sujeción, deberán instala- se dispositivos salva pájaros a fin de minimizar el ries- go de colisión para la avifauna.

b) De acuerdo con lo señalado en el estudio de im- pacto ambiental, en situaciones de temporal, cuando se alcancen velocidades de viento superiores a 90 kilóme- tros por hora, se procederá a la parada total de los ae- rogeneradores, que no podrán iniciar su funcionamien- to hasta que la velocidad del viento alcance valores in- feriores a los señalados.

c) Cuando se estime que el riesgo para la avifauna por el funcionamiento de determinados aerogenerado-

go dira aerosorgailu horien funtzionamendu-erregimenean. Horretarako, sustatzaileak funtzionamendu-proposamena egingo du ingurumena zaintzeko programaren emaitzetan oinarrituta. Proposamen hori, behar bezala justifikatu ondoren, Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztu beharko da, ones dezan. Proposamena parke eolikoak lehenengo urtea betetzean aurkeztuko da, hurrengo urteko martxoaren 1etik 15era bitartean.

2.c.2.2.– Parke eolikoan sortzen diren hondakinen kudeaketa.

a) Parke eolikoan sortutako hondakinak Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeak eta aplikatu ahal diren gainerako araudi berariazkoek xedatutakoari jarraiki kudeatuko dira. Hala behar denean, gainera, ezaugarriak aipatu beharko dira, hondakinen iziera eta xederik egokiena zehaztu ahal izateko.

b) Erabilitako olioek dagokienez, gainera, irailaren 29ko 259/1998 Dekretua ezarriko da (beraren bidez, erabilitako olioaren kudeaketa arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan).

c) Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen baloratzaileran eraman behar dira.

d) Sustatzaileak hondakin arriskutsuak ekoizteko baimena eskatu beharko du edo, hala badagokio, EAEko Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta araudi berarizkoetan ezarritakoarekin bat etorrituz.

2.c.3.– Instalazioak bertan behera uztea.

Jarduera bertan behera uzteko unean aplikagarria den araudi berariazkoari kalterik egin gabe, eraispen-operazioak egiteko ebazpen honetan obra-faserako ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileen antzekoak aplikatuko dira, bereziki, uren kalitatea zaindu, fauna babestu eta hondakinak kudeatzeari dagokionez.

2.D.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte, bai eta dagokion bermealdiak iraun artean eta, batez ere, obrak zuintatzeko eta lurrak mugitzeko faseetan zehar ere, Obra Zuzendaritzak ingurumen-gaietan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan aditua den aholkularitza izan beharko du. Baldintza-agirian Obra Zuzendaritzari izendatutako egitekoak direla-eta, aipatutako gaiei buruz Obra Zuzendaritzak erabakiak hartu aurretik aholkularitza horretako espezialistek egindako txostena hartu beharko du gogoan.

2.E.– Ingurumena Zaintzeko Programa

Ingurumena Zaintzeko Programa obra kontratatze-ko baldintza-agirian jasota geratuko da, dagokion au-

res pueda ser alto, podrán establecerse cambios en el régimen de funcionamiento de dichos aerogeneradores. A tal efecto, el promotor deberá realizar una propuesta de funcionamiento, basada en los resultados del programa de vigilancia ambiental. Dicha propuesta, debidamente justificada, deberá presentarse para su aprobación por parte de esta Viceconsejería de Medio Ambiente, tras el primer año de funcionamiento del parque eólico, entre el 1 y el 15 de marzo del siguiente año.

2.c.2.2.– Gestión de los residuos generados en el parque eólico.

a) Todos los residuos generados durante el funcionamiento del parque eólico se gestionarán de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y normativas específicas que le sean de aplicación, debiendo ser, en su caso, caracterizados con objeto de determinar su naturaleza y destino más adecuado.

b).– En el caso de los aceites usados, será de aplicación además el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado.

d) El promotor deberá solicitar la correspondiente autorización de productor de residuos peligrosos, o en su caso, actualizar su inscripción en el Registro de Pequeños Productores de Residuos Peligrosos de la C.A.P.V., de acuerdo con lo establecido en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y normativas específicas.

2.c.3.– Abandono de las instalaciones.

Sin perjuicio de la normativa específica que resulte de aplicación en el momento del abandono de la actividad, las operaciones de desmantelamiento se realizarán mediante la aplicación de medidas protectoras y correctoras similares a las establecidas en esta Resolución para la fase de obras, en especial, en lo que se refiere a la protección de la calidad de las aguas, a la protección de la fauna y a la gestión de los residuos.

2.D.– Asesoría ambiental.

Hasta la finalización de la obra y durante el período de garantía de la misma y, fundamentalmente, durante la fase de replanteo de las obras y de movimientos de tierras, la Dirección de Obra deberá contar con una asesoría cualificada en temas ambientales y medidas protectoras y correctoras. Las resoluciones de la Dirección de Obra relacionadas con las funciones que le asigne el pliego de condiciones sobre los temas mencionados deberán formularse previo informe de los especialistas que realicen dicha asesoría.

2.E.– Programa de Vigilancia Ambiental.

El Programa de Vigilancia Ambiental quedará integrado en el Pliego de Condiciones para la contratación

rrekontuarekin batera. Aurrekontu horrek ez du soilik obra behin-behinean hartu arteko aldia barneratuko, baizik eta baita obraren bermealdia eta parke eolikoa martxan dagoen bitarteko aldia ere. Denboraldi horietan zehar, ingurumena ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutakoarekin bat etorritik zainduko da dagozkion alderdi guztietan, eta horrez gain, jarraian aipatzen diren kontrolak ere egingo dira:

2.e.1.– Proiektua nola gauzatzen den zaintzea.

2.e.1.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri babesleak eta zuzentzaileak noraino bete diren jasotzeko erregistroa ere. Erregistro hori Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egon beharko da eta, obrak amaitzen direnean, nolanhari ere, Sailburuordetzari bidali beharko zaio.

Hala badagokio, proiektua garatu bitartean sartutako aldaketak zehetasunez dokumentatu beharko dira, ingurumenean duten eragina kontuan hartuta. Halaber, indusketa-hondakinak zertarako erabiliko diren dokumentatu beharko da.

2.e.2.– Parkea abian dagoen bitarteko zainketa.

2.e.2.1.– Hegaztiengan duen eraginaren kontrola.

Parke eolikoko instalazioek hegaztiengan duten eraginaren kontrola eta jarraipena hurrengo paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik egingo dira. Zehazki, honako kontrolak egingo dira:

Hegazti sedentario, negutar eta migratzaileek izan ditzaketan talkak eta portaera-aldaketak kontrolatuko dira.

Proiektuaren eragin-eremuan habia egin eta larrertzen diren belatz handien (*Falco peregrinus*) bikoteek ugaltzeko orduan duten portaera eta arrakasta kontrolatuko dira.

Horretarako, besteak beste, jarraian aipatzen diren jardunak egingo dira:

Hegaztien portaera eta ezbehar-tasa tokian bertan aztertuko dira, hamabost egunean behin, zein espezie dauden ikusteko eta ongi aztertzeko espezie horietatik zenbatek egin dezaketan talka aerosorgailuen kontra edo zenbatek jasan dezaketan horien eragina. Arreta berezia jarriko da gunean dauden belatz handiaren banakoek jasan dezaketan eraginari.

Migrazio-baldintzen jarraipena egingo da, astean bi aldiz, migrazio-aldian zehar, kumaldiaren aurretik eta ondoren (gutxienez martxoan eta apirilean, eta abuztutik azarora bitartean, hurrenez hurren). Jarraipen horri

de la Obra y contará con el presupuesto correspondiente, no sólo hasta la recepción provisional de la obra sino durante el periodo de garantía de la misma, así como durante el funcionamiento del parque eólico. Durante estos periodos, la vigilancia deberá realizarse de acuerdo con lo propuesto en el estudio de impacto ambiental, en lo relativo a los aspectos a considerar, debiendo añadirse los controles que a continuación se detallan.

2.e.1.– Vigilancia durante la ejecución del proyecto.

2.e.1.1.– Registro de eventualidades.

Deberá llevarse un registro de las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las obras, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras. Dicho registro deberá estar disponible para su inspección por la Viceconsejería de Medio Ambiente, y remitirse a ésta, en cualquier caso, al finalizar las obras.

Deberán documentarse detalladamente las modificaciones puntuales que, en su caso, hayan sido introducidas durante la ejecución del proyecto, con justificación desde el punto de vista de su incidencia ambiental. Se documentará asimismo el destino concreto de los sobrantes de excavación.

2.e.2.– Vigilancia durante la fase de funcionamiento del parque.

2.e.2.1.– Control de las afecciones sobre la avifauna.

El control y seguimiento de la incidencia de las instalaciones del parque eólico sobre la avifauna se efectuará de acuerdo con lo establecido en los párrafos siguientes. En concreto se establecerán los siguientes controles:

Control de colisiones y cambios de comportamiento de la avifauna sedentaria, invernante y migradora.

Control del comportamiento y éxito reproductivo de las parejas de halcón peregrino (*Falco peregrinus*) que anidan y campean en el ámbito de afección del proyecto.

Para ello se realizarán, entre otras, las actuaciones que se detallan a continuación:

Observación sobre el terreno del comportamiento y la siniestralidad de aves, con periodicidad quincenal, con objeto de identificar las especies y el número de individuos de cada una de ellas que pudieran colisionar o verse afectados por los aerogeneradores. Especialmente se atenderá a la posible afección a los individuos de halcón peregrino presentes en el área.

Seguimiento de las condiciones de migración, con periodicidad de dos veces por semana, en los periodos migratorios pre y postnupciales (como mínimo marzo y abril, y de agosto a noviembre, respectivamente), con

esker, aerosorgailuen inguruetan hegaztien ezbehar-tasa eta portaera ebaluatu ahal izango dira.

Oharrekin batera, hegaztiekin jasan dezaketen eragina areagotu dezaketen inguruabar atmosferikoei buruzko datuak emango dira, besteak beste, ipar-haizea daktarten ekaitzei eta hotz-boladei buruzkoak.

Hegaztien kontrola egiterakoan ikusitako guztia txosten espezifikotan adieraziko da. Txosten horietan honakoei buruzko gorabeherak zehatz-mehatz jasotzen dira: animalien gaineko eragina eta horien hilketa (aerosorgailuak, espezieak eta banakoen kopurua, eraginaren emaitza, eguna, abiadura eta haizearen norabidea, baldintza meteorologikoak, e.a.), hegaztien portaera-aldaketak (bertakoak, negutarrak zein migratzaileak izan), eta neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua.

2.e.3.– Ingurumena Zaintzeko Programaren emaitzak.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu, eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenen emaitzen analisia jasoko da, epe horretan izandako gertakari nagusiak, haien kausak eta konponbideak bereziki aipatuta.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta Administrazio Publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpena izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.F.– Neurri babesleak eta zuzentzaileak eta, halaber, ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, baita neurri behar diren parametroak, neurketa egiteko maiztasuna eta parametro horien mugak ere. Aldaketok egingo dira araudi berriak indarrean jartzeak edo inplikaturako sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharrak hala gomendatzen duenean. Halaber, bai neurri babesleak eta zuzentzaileak bai ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, sustatzaileak eskatuta zein ofizioz, ingurumena zaintzeko programaren emaitzen arabera.

2.G.– Ebazpen honek aurreko ataletan ezarritakoari kalterik egin gabe, sustatzaileak honako agiri hauek bidali beharko ditu Ingurumen Sailburuordetzara, honen onespina eman dezan:

2.g.1.– Obrak hasi baino lehen, ingurumena zaintzeko programaren agiri bateratua aurkeztuko da. Ber-

objeto de evaluar la posible siniestralidad y el comportamiento de las aves en las proximidades de los aerogeneradores.

Las observaciones irán acompañadas de datos relativos a posibles circunstancias atmosféricas agravantes de afecciones sobre la avifauna, tales como temporales con fuertes vientos de componente norte y olas de frío.

Las incidencias observadas en el control sobre la avifauna, deberán reflejarse en informes específicos que recojan detalladamente las eventualidades referidas a la afección y mortandad faunística (aerogeneradores, especies y n.º de individuos implicados, resultados de la afección, fechas, velocidad y dirección del viento, condiciones meteorológicas, etc.), a los cambios de comportamiento de la avifauna, tanto residente como invernante y migradora, y al funcionamiento de las medidas protectoras y correctoras.

2.e.3.– Resultados del Programa de Vigilancia Ambiental.

Los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el Programa de Vigilancia quedarán debidamente registrados y se remitirán a esta Viceconsejería de Medio Ambiente. Dicha remisión se hará con una periodicidad anual y los resultados del programa de vigilancia deberán acompañarse de un informe realizado por una entidad especializada en temas ambientales. Dicho informe consistirá en un análisis de los resultados, con especial mención a las incidencias más relevantes producidas en este periodo, sus posibles causas y soluciones.

Sin perjuicio de la normativa que sea de aplicación en cada caso, los diferentes datos se almacenarán por parte del Promotor del proyecto en un soporte adecuado durante al menos dos años, estando a disposición de los servicios de inspección de las Administraciones Públicas.

2.F.– Las medidas protectoras y correctoras, así como el Programa de Vigilancia podrán ser objeto de modificaciones, incluyendo los parámetros que deben ser medidos, la periodicidad de la medida y los límites entre los que deben encontrarse dichos parámetros, cuando la entrada en vigor de nueva normativa o cuando la necesidad de adaptación a nuevos conocimientos significativos sobre la estructura y funcionamiento de los sistemas implicados así lo aconseje. Asimismo, tanto las medidas protectoras y correctoras como el programa de Vigilancia Ambiental podrán ser objeto de modificaciones a instancias del Promotor de la actividad, o bien de oficio a la vista de los resultados obtenidos por el Programa de Vigilancia Ambiental.

2.G.– Sin perjuicio de lo dispuesto en anteriores apartados de esta Resolución, el promotor deberá remitir a la Viceconsejería de Medio Ambiente, para su aprobación, los documentos siguientes:

2.g.1.– Con anterioridad al inicio de las obras, un documento refundido del Programa de Vigilancia Am-

tan, ebazpen honek horri buruz ezartzen dituen zehaztapenak jasoko dira, ingurumen-inpaktuaren azterketan egindako proposamenekin batera.

2.g.2.– Hurrengo urteko martxoaren 1etik 15era bitartean, parke eolikoa abian jarri zenetik urtebete igaro denean, aerosorgailuak abian jartzeko proposamena egingo da.

2.H.– Halaber, proiektuaren sustatzaileak ere honako agiriak bidaliko ditu ingurumen-organo honetara:

2.h.1.– Obrak amaitzean, obra horiek garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa bidali beharko da; eta erregistro horrek neurri babesleak eta zuzentzaileak zein neurritaraino bete diren jasoko du, Ebazpen honen 2.e.1.1 puntuan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.h.2.– Urtero, jarduera hasten denetik, Ebazpen honen 2.e.3 atalean aurreikusten den ingurumena zaintzeko programari buruzko agiria bidaliko da.

3.– Aditzera emango da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 47.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honek, ondorio guztietarako, jarduera-lizentzia emateko behar diren neurri zuzentzaileen txostena ordezkatzeko duela.

4.– Bi urteko epea finkatzen da proiektua betetzen hasteko, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 47.8 artikuluari jarraituz. Epe hori bukatu ondoren proiektuari ekingo ez balitzaio sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo eskudunak proiektua betetzen hasteko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

5.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin aginduko da.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko uztailaren 16a.

Ingurumen sailburuordea,
IÑAKI EZKURRA YURREBASO.

biental, en el que se recojan las determinaciones al respecto contenidas en esta Resolución, además de las propuestas en el estudio de impacto ambiental.

2.g.2.– Entre el 1 y el 15 de marzo del año siguiente, una vez transcurrido un año completo de funcionamiento del parque eólico, una propuesta de funcionamiento de los aerogeneradores.

2.H.– Asimismo, el Promotor del proyecto deberá remitir a este Órgano Ambiental la documentación siguiente:

2.h.1.– Al finalizar las obras, un registro de las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las mismas, así como del nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras, de acuerdo con el punto 2.e.1.1 de esta Resolución.

2.h.2.– Con una periodicidad anual desde el inicio de la actividad, el documento relativo al Programa de Vigilancia Ambiental previsto en el apartado 2.e.3 de la presente Resolución.

3.– Informar que, de acuerdo con el artículo 47.3 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, esta declaración de impacto ambiental suple, a todos los efectos, al informe de medidas correctoras necesario para el otorgamiento de la licencia de actividad.

4.– Imponer, de acuerdo con el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, un plazo para el inicio de la ejecución del proyecto de 2 años, a contar desde la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco. Transcurrido dicho plazo sin haberse procedido al inicio de la ejecución del proyecto, por causas imputables al promotor, la Declaración de Impacto Ambiental perderá toda su eficacia. No obstante, el órgano competente podrá prorrogar el plazo de inicio de ejecución si existieran causas debidamente justificadas.

5.– Ordenar la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2004.

El Viceconsejero de Medio Ambiente,
IÑAKI EZKURRA YURREBASO.